

PRESUPUESTOS MUNICIPALES



Kapital Diru-sarrera eta Gastuak

06

Ingresos y Gastos de Capital

Bestetik, kapital diru-sarrerak ditugu. Honako kapitulu hauetatik datoz:

- **6. Kapituluak:** Inbertsio Errealak Besterentzea Eta Beste Diru-Sarrerak

Lursailak, hirigintza-jarduketak, hirigintzako aprobetxamenduak... ondare-lurrak saltzeagatik eskuratutako diru-sarrerak dira.

- **7. Kapituluak:** Kapital-transferentziak

(Ur-partzuergoa...): beste administrazioek inbertsioak eta obrak egiteko diru-sarrerak dira.

- **8. Kapituluak:** Finantza-aktiboak

Zorra besterentzea, mailegu-itzulketak, langileentzako aurrerakinak...

- **9. Kapituluak:** Finantza-pasiboak

Udalak kontratatutako mailegu-kopurua da (aurten 0).

Por otro lado, tenemos los Ingresos de capital. Proceden de...

- **Capítulo 6:** Enajenación De Inversiones Reales Y Otros Ingresos.

De terrenos, de actuaciones urbanísticas, aprovechamientos urbanísticos... Son los ingresos por venta de suelo patrimonial.

- **Capítulo 7:** Transferencias De Capital.

(Consortio de aguas...) Son los ingresos de otras administraciones con destino a inversiones y obras.

- **Capítulo 8:** Activos Financieros

Enajenación de deuda, reintegro de préstamo, anticipos de personal...

- **Capítulo 9:** Pasivos Financieros

Contiene la cifra de préstamos contratados por el Ayuntamiento.

Este año ha sido de 0.

Kapital diru-sarrera horiek kapital-gastuak ordaintzeko dira. Hauexek dira kapital-gastuak:

Con estos ingresos de capital debemos cubrir los siguientes gastos de capital:

Kapital-gastuak

- **6. Kapituluak:** Inbertsioak

Udalaren inbertsio errealetarako partida da.

- **7. Kapituluak:** Kapital-transferentziak

Udalak beste erakundeei transferitzen dizkien gastuak dira, inbertsioak egin ditzaten (Udalak diruz lagunduta egiten diren obra-proiektuak).

- **8. Kapituluak:** Finantza-aktiboak

Zorra edo akzioak erostea, maileguak edo aurrerakinak ematea...

- **9. Kapituluak:** Finantza-pasiboak

Zorra kitatzeagatik izandako gastuak.

Diru-sarrera eta Gastuetan errepikatzen den partida honen barnean daude Udalak kontratatutako maileguak (Udalkutxa, esaterako).

Azalpen honek badu bere garrantzia, zera argitu nahi baitu: diru-sarrera arruntekin ordaindu behar direla gastu arruntak eta Udalkutxari itzulketak (baldin badaude), eta kapital diru-sarrerekin, aldiz, kapital-gastuak. Soilik aurrezki garbia dagoenean (diru-sarrera arrunta gehiago dagoenean gastu arruntak baino), "soberakin" hori kapital-gastuak ordaintzeko erabil daiteke..

Gastos de Capital.

- **Capítulo 6:** Inversiones.

Esta partida son las inversiones reales del Ayuntamiento.

- **Capítulo 7:** Transferencias De Capital

Son los gastos que el Ayuntamiento transfiere a otras entidades para que puedan desarrollar también inversiones, es decir, proyectos de obras donde el Ayuntamiento colabora con una aportación económica.

- **Capítulo 8:** Activos Financieros.







Adquisición de deuda, acciones, concesión de préstamos o anticipos...

- **Capítulo 9:** Pasivos Financieros

Gastos por cancelación de deuda.

Esta partida que se repite en Ingresos y Gastos se refiere a los préstamos contratados por el Ayuntamiento (Ejem: Udalkutxa).

Esta explicación no es baladí, ya que lo que se ha pretendido es constatar que con los ingresos corrientes hay que cubrir los gastos corrientes + las devoluciones a Udalkutxa si las hubiere y los ingresos de capital deben ser destinados a gastos de capital. Únicamente cuando se produce un ahorro neto, es decir los ingresos corrientes superan a los gastos corrientes, ese, digamos excedente, puede ser utilizado para gastos de capital

-  944 890 184
-  erandioirekia@erandio.eus
-  650 858 780
-  @erandiokoudala
-  <https://www.facebook.com/erandiokoudala>
-  https://www.instagram.com/erandioko_udala/